

**“ORAINDINO BIHOTZEKO HEGOAK  
EZ ZAIKIGU ERORI”**

*“Desio kadukatuak, halere, ez dira bain mingotsak  
eta mespretxurik gabe jaurtitzen ditut zakarrontzira  
etxetik kanpo birziklatze-makinek eralda dezaten mundua”.*

*(Ana Urkiza)*

### **1. Iparrizarrari so**

Ilusioz, begirunez, ikasminez eta bestelako sentimendu nahasi batzuez so egiten diogu Ipar Euskal Herriaren egituratze administratibo minimo bat helburu duen gaur eguneko dinamika politari. Bistan da egiazko helburua ez dela, baina, egitura administratiboen sortzea bera, euskaldun identitate kolektiboak geroan irautea baizik. Instituzionalizazioa horretarako tresna bat besterik ez da. Lau instituzio-ardatz planteatu zituen “Batera” plataformak eta haiekin bat egin du Iparraldeko gehiengo politiko-sozialak: Departamendua, euskararen ezagupen ofiziala, herezko unibertsitatea eta Laborantza Ganbera. Frantziako Administrazioa entzungor egiten ari denez gero, eskarien arlo hutsetik ekintzen arlora igarotzeko pauso batzuk iragarrita daude eta beste batzuk ematen hasiak dira, hala nola Departamenduari buruzko erreferendumerako urratsak edo